

BAOn 2020-11-12 argitaratuta

BERMEOKO UDALA

2020ko irailaren 25ean, Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak onartutako Bermeoko Udaleko lehentasunak, zeremonia eta protokoloa arautzen dauzan udal ordenantzaren aldaketen behin-betiko onespena

Bermeoko Udaleko lehentasunak, zeremonia eta protokoloa arautzen dauzan udal ordenantzea

I. Titulua ATARIKO XEDAPENA

1. art.

Araudi honek Bermeoko udalerrian egiten diran ekitaldi ofizialetan agintari publikoen lehentasunen araubidea eta hurrenkerea arautzen dauz, baita hareetan kontuan izan behar diran zeremoniala eta protokoloa be.

Udala korporazino, alkarte edota legez ahalmena daukan pertsona bakarreko organoaren bitartez ordezkatuta dagoan ekitaldi eta ospakizunetan baino ez da ezarriko araudi hau.

II. Titulua EKITALDI PUBLIKOAK

I. Kapituluua: EKITALDI OFIZIALAK

2. art.

1. Araudi honen ondorioetarako, ekitaldi publikoak, ofizialak edota pribatuak izango dira.
2. Ekitaldi ofizialak, Udalak edo estatu, autonomia edo foru administrazinoko beste edozein organok antolatzen dauzenak izango dira eta bestalde, pribatuak, izaera hori daukien erakundeek antolatutakoak.

II. Kapituluua: LEHENTASUNEN HURRENKEREA

3. art.

1. Ekintza ofizialetan, orokorrean, ondorengo lehentasunen hurrenkerea jarraituko da:
 - a- EAEko Lehendakaria
 - b- Alkatea
 - c- Lehendakariordeak

- d- Eusko Legebiltzarreko presidentea
 - e- Auzitegi Goreneko presidentea
 - f- Bizkaiko Diputatu Nagusia
 - g- Arartekoa
 - h- Kontu Auzitegiko presidentea
 - i- Eusko Jaurlaritzako kontseilariak
 - j- Foru diputatuak
 - k- Alkateordeak, izendapenaren hurrenkerearen arabera
 - l- Tokiko Gobernuak kideak diran zinegotziak
 - m- Gainontzeko zinegotziak zaharretik gazteenera
 - n- Auzoetako alkateak. Auzoen izenen ordena alfabetikoan, haren esparruetatik kanpo egiten diran ekintzetan. Auzo bakoitzean egiten diranetan, bere lekua Uriko alkatearen hurrengo izango da.
 - o- Bake epailea
 - p- Udaleko idazkari nagusia
2. Ekitaldiko hurrenkeran, EAEko lehendakariak parte hartu ezker, Alkatea baino lehenago joango da beti. Bardina gertatuko da gainerako kargudunekin euren aurrekoak agertzen ez badira.

4. art.

Aurreko artikuluan aitatutako hurrenkerea karguaren titularrak diranentzat da eta kasuak-kasu, beherago dagoan hurrengo karguentzat, haren ordezkari aurkezteko eskuordetza emon badeutsie aurrekoek. Arestian aitatutakoak baino beheragoko maileak daukien ordezkariak ez da onartuko.

III. Kapituluak: EKITALDI PRIBATUAK

5. art.

1. Beste erakunde ofizial batzuek antolatutako ekitaldietan baita pribatuetan be, Alkateak, zeinek Makila eroango dau, lehendakariak daukanaren hurrengo lekua hartuko dau eta bere eskoian kokatuko da. Gainontzeko gonbidatuei jagokenez, ekitaldia antolatu dabenean zehaztu dabean hurrenkerak eta bestelako gorabeherak errespetatuko dira.
2. Halanda be, udaletxean edota Udalarenak diran beste edozein egoitzatan egiten diran ekitaldietan, Alkatea egon ezker, bera izango da buru EAEko lehendakaria bertan dagoenean izan ezik, eta orduan 3. artikuluko azken paragrafoan xedatutakoa beteko da.

6. art.

Udalak antolaturikoak ez diran ekintza pribatu zein publikoetan Udaleko protokolo zerbitzuak erakunde antolatzailerarekin koordinatuta jardungo dau, hurrenkerea ezarri eta kontuan euki beharreko ganerako xehetasunak zehazteko, ekitaldia behar dan moduan egin daiten.

7. art.

1. Omenaldi, esker on edo ohorezko izendapena emoteko ekitaldi pribatueta, omendutako pertsonak ekitaldiaren buru danaren hurrenkerearen ondorengo lekua hartu ezker, Alkatea haren ezkerrean kokatuko da.
2. Ekitaldia ofiziala bada, omendutako pertsona alkatearen eskoian kokatuko da, eta 3. artikuluan ezarritako hurrenkeran postu bat aldatuko da, nahiz eta ekintza 5. artikuluan aitatutako forma batean zein bestean izan.

III. Titulua

PROTOKOLOA

I. Kapitulu: EKITALDI OFIZIALETAN UDALBATZAREN PARTE HARTZEA

8. art.

Udala Udalbatza lez eratuko da araudi honetan agertzen diran ekitaldi eta ospakizunetara joateko eta bertan parte hartzeko, baita Alkatetzak, Bozeramaileen Batzordeagaz batzartu ondoren eta Protokolo buruaren aholkularitzaz erabagiten dauan beste edozein kasutan be.

9. art.

Udalbatza, ekintza konkretu batera badoa aurreko artikuluan aitatutako moduan, ondorengo arauak kontuan hartu beharko dira:

1. Ezarritako orduan eta Araudi honetan edo bereziki kasu bakoitxerako zehazten diran janzkera eta ezaugarriekaz, udalkide guztiak eta idazkari nagusia kasu bakoitzean aginduriko lekuan bertaratuko dira, adierazten dan lez paratuz:
 - a. Aurrekaldean, Alkatea, bere eskoian lehen Alkateordea, eta bere ezkerrean, Sindikoa.
 - b. Honeen ondoan, eskoi-ezkerretara txandakatuta, beste Alkateordeak edo-ta Tokiko Gobernuako kideak.
 - c. Honeen atzekaldean, beste zinegotzi guztiak, zaharrenetik gazteenetara, eskoitik hasita, Idazkari Nagusiak ezkerretaranengo lekua hartuz.
 - d. Holan egongo dira txistularien bandeak *Alkate Soinu*a jo arte, arautegi honen 1. eranskinean agertzen dan moduan.
2. Prozesino zibikorako segizinoa Euskal Herrian ohikoa dan ordenan antolatuko da, ilara bitan, Uriko Estandarteak darioan Sindikoa buru dala, bere ezkerrean idazkari nagusia, eta eskoian zinegotzi gazteena dauzala. Horreen atzetik, aldizka eta ilara bitan, ganerako zinegotziak joango dira, adinaren arabera, eta azkenean Udal Gobernuak eta Alkate udalburua 2. eranskinak adierazten dauan modura.
3. Salbuespenez, Alkateak begirunea eta adeitasuna adierazoteko berariaz gonbidatu badau, Udalbatzakoa ez dan pertsonaren batek parte hartu ahal izango dau segizinoan Alkatearen eskoian jarritz. Halan danean, Alkateak bere lekua itxi eta atzeko ilara baten jarriko da, 3. eranskinean agertzen dan lez.

4. Aitatutako pertsonen gain, beste inork ezingo dau segizinoan parte hartu ezta bertan egon be, araudi honetan jartzen diran salbuespenak izan ezean.
5. Segizinoan partaideak une oro isilik, begirunez eta seriotasunez egon beharko dira.
6. Udaltzaingoak babestuko dau segizinoa, kasu bakotxean zehaztuko dan udaltzain kopuruagaz.
7. Segizinoa laguntzen doazen jai-giro, musika, dantza eta abarreko taldeak, haren aurretik joango dira beti eta, ez honeetako kideek, ezta beste inork be, ezingo dabe inondik inora segizinoa oztopatu ezta trabarik egin behar dan moduko ordena eta seriotasunez igaro daiten.

10. art.

1. Edozein kasutan be, Udaltzaingoari jagoko segizinoaren kalejirea jagotea normaltasun osoz joan daiten herriko kaleetatik.
2. Beste zerbait erabagi ezean, ekintzea burutu ondoren Udaltzaingoa arduratuko da Uriko Estandarteaz eta, behar bada, Makilaz be, ahalik eta arinen udaletxera eroateko.

II. Kapitulua: JANZKERIA

11. art.

Araudi honek arautzen dauzan ekitaldi ofizialetara joateko, udalkideen janzkera kasu bakotxerako bertan zehazten dana izango da. Beste kasu guztietan, Alkatetzak erabagiten dauena egingo da.

12. art.

Arau orokor legez, informal dotorea izango da.

13. art.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoaren ordeiz, Madalen, San Juan Degoilatua, Andra Mari eta Santa Eufemia jailetako ekintzetara joateko janzkera ondorengoa izango da: botoi balzdun mahoizko alkondara mangaluzea eta mahoizko frakak edo gonea gerriko zuriagaz, eta Bermeoko armarridun zapia idunean. Oinetakoak zapata ilunak izango dira, baina Madalen eta San Juan Degoilatu egunetan, kirol-oinetakoak eroan ahal izango dira.
2. Udala Udaltzain lez antolatuten danean, zinegotziek ezingo dabe bere erropetan agertu ezelako sigla, ikur, lelo, kontsigna edo antzekorik, udal-sinboloak ezean.

14. art.

Aurreko artikuluetan ezarritakoa Udaleko Idazkari Nagusiarentzat be aplikagarria izango da.

III. Kapitulua: IKURRAK

1. atala: MAKILA

15. art.

1. Makila Justiziaren irudia da, eta herritar guztiak tratamendu bera izango dabela, pribilegiarik izan barik, adierazoten dau. Uriko Alkateak bakarrik eroan ahal izango dau udalerrri osoan. Auzoetako alkateek be makila eroan ahal izango dabe, baina euren auzoen barrutian baino ez.
2. Uriko Alkateak, udalean dagozan makilen artetik, berak legealdiaren hasieran aukeratutako makila erabiliko dau legealdi osoko protokolo egunetan.
3. Auzoetako alkateen makilburuak eta txurroak zidar kolorekoak izango dira, eta lehenengoaren ganean auzoaren izena eta *Bermeo* berbak izango dabez grabatuta.

16. art.

1. Uriko Alkate barria aukeratzeko egiten dan ekitaldi edo bilkuran, kargua ixten dauenak leku berezia izango dau areto nagusian, eta makilea emongo deutso Alkate barriari.
2. Alkatea berriro hautatua izanik, mahaiburua dan zinegotziak emongo deutso makilea.

17. art.

1. Ezelan be ez, ezta adeitasun edo hierarkia arrazoiengaitik be, itxiko deutso Alkateak makila inongo agintariari.
2. Auzoetako alkateek Uriko alkateari bakarrik itxiko deutsie Makila honek zehaztuten dauzan kasuetan edo araudi honek azpimarratzen dauzan ganerakoetan.

18. art.

1. Behin izendatu ondoren, Auzo-alkateek Uriko Alkatearengandik hartuko dabez makilak ekitaldi publiko batean.
2. Makila Auzo-alkateen esku egongo da agintaldi osoan; hau amaitzen danean, eta euren ordezekoak izendatzeko ekitaldian, aurreko paragrafoan ezarritako moduan emongo deutsie makila.

2. Atala: UDALBATZAKO INTSIGNIA

19. art.

Bermeoko udalbatzak ez dauka intsigniarik.

3. Atala: URIKO ESTANDARTEA

20. art.

Uriko Estandarte, armariagaz batera, udalerriko intsignia nagusiena da, eta historia, aginpidea eta handitasuna adierazoten dauz, eta han non agertzen dan Bermeo Uriko legezko agintarien presentzia adierazoten dau.

21. art.

Uriko Estandartea Udala Udalbatza lez osotzen danean baino ez da erabiliko, desfileetan segizinoaren aurretik joanez, eta Sindikoak eroango dau 1792ko masteagaz arautegi honetako 9-1 eta 9-2 artikuluetan ezarri dan moduan, eta ezin izango da bertan adierazita ez dagozan beste helburu batzuetarako erabili.

22. art.

1. Uriko Estandartea material noblezko eta karmin-koloreko ohiaiez egina izango da. Urre-koloreko flekodun hiruki zuzenaren itxurea izango dau; lekagunea edo kateto txikia 122 cm-koa izango dau, eta 182 cm-ko jalgigune edo kateto nagusia; hipotenusa konkortu konbexua izango da eta jalgiguneko erpinean urre koloreko borla bat eukiko dau.
2. Erdigunean Uriko armarri heraldikoa eroango dau bordaturik, triangeluaren alde txikiaren paraleloan daukala ezkuaren burua, eta haretx hosto eta ezkurrekaz orlaturik agertuko da. Armarriaren inguruan *Bermeoko Udala* inskripzioa agertuko da urre kolorez.
3. Mastaren goreneko muturretik, gorri, zuri eta berde koloreko hiru zinta egongo dira zintzilik.

23. art.

Uriko Estandartea ekitaldiren batera eroaten danean, leku nabari eta ikusteko modukoan jarriko da.

24. art.

1. Uriko Estandartea eroan eta zaintzeko ahalmena Sindikoari jagoko, eta ardura hori zinegotzi gazteenak hartuko dau, eta haren ordezkoa hurrengo gazteena izango da.
2. Kargu hori Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 38. artikulua aitatzten dauan udalaren ez ohiko osoko bilkuran behin izendatua izan ondoren, Alkatetzeak igorriko dauen dokumentu artistiko baten islatuko dan adeitasun eta ohorezko adierazgarria izango da.

25. art.

Uriko Estandartea edota Makila eroaten dan ekitaldi bat amaitzen danean eta Udalbatzak ez badau udaletxera itzuli behar, Udaltzaingoak hartuko dau hareen ardurea, eta ahalik eta arinen eroango dauz udaletxera.

4. atala: URIKO ARMARRIA

26. art.

Armarria, Uriko Estandarteagaz batera, Uriko sinbolorik nagusiena da, eta horregaitik, behar besteko errespetua zor jako.

27. art.

1. Bermeoko Armarriak honako ezaugarri honeek daukaz:

Urrezkoa da, eskoian, sablezko bale ontzia eta lau arraunlari dagoz abantean eta brankaganean zutunik dagoan arpoilariak arpoia jaurtitzen deitso sablezko zeroi bati, eskoian berau be, eta guztiak zidar eta urdin koloreetako olatuen ganean. Goiburua, faja, eskoirantz doazen sablezko otso bi dagoz, eta gane-ganean bizardun buru bat. Azpa gorria dau, eta bertan sablezko letrakaz idatzita Stemma proderi in Primis Bermei legenda agertzen da.

2. Uriko Armarria erabiltearen eta berregitearen inguruan, *Bermeoko Uri txit Argi eta txit Leialaren armarria erabilteko arauak ipinten dauzan udal ordenantzeak ezarritakoa bete beharko da.*

5. atala: BERMEOKO BANDEREA

28. art.

Bermeoko Banderea lauki zuzena izango da; 1:2 proportzinokoa, hau da, jalgiguneko unitate bi edukiko dauz lekaguneko unitate bakotzeko. Bertikalean erdibitua izango da, mastaren aldeko erdia gorria (PANTONE 186C) izanik, eta eraginaren aldekoa zuria.

29. art.

Bermeoko Banderea jasoko da, bakarrik edo beste baten ondoan, udaletxean zein Udalaren eta Udal erakundeen jabegodun eraikinetan, baita jagokon erabagietan agintzen diran lekuetan be.

30. art.

Bermeoko Banderea, maila goreneko beste baten ondoan agertzen dan kasuetan, haren ezkerrean (ikuslearen eskuinaldean) jasoko da. Eta masta zutun edo gurutzatuetan be, holan ipiniko da.

31. art.

Udalak aginduriko dolu egunetan, Bermeoko Banderea, bai udaletxe aurrean zein udalaren edozein eraikinetan jasota dagozan beste guztiak be, masta erdian jasoko dira. Modu horretara jarri ezin dan lekuetan, triza lotzen dan lekuan ipiniko jako krespoi baltza.

32. art.

Bermeoko Banderea bermeotar guztiek erabili ahal izango dabe eta erabili behar dabe ordezkutzen dauzan ikur legez, baina ezingo jako inoz enpresa, alderdi politiko, sindikatu, alkarte edo bestelako erakundeen hizki, marka edo logotiporik ganean erantsi.

33. art.

Bermeoko Udalbatzak herriko ohiturak mantenduko dauz. Honetarako, egun zeremonialetan Uriko estandarte eta Alkatearen makila erabiliko dira, kasuan kasu. Baina inoiz Uriko ikurrak diran honeek inoiz ez dira sartuko gunerlijosoetara.

IV. TITULUA ZEREMONIAK

I. Kapituluak: SAN PEDRO EGUNA “Arrantzaleen kofradiaren eguna”

34. art.

Udala, ohikoa danez, Arrantzaleen Kofradiaren gonbidapena onartuz, 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera eta 12. artikuluan agertzen diran jantziekaz, ekainaren 29an Arrantzaleen Kofradiako presidentea eta Zuzendaritza Batzordea agurtzera joango da goiko Plazan Udalbatza osotuz, gonbidapenean agertzen dan lekura.

35. art.

Segizinoaren aurretik Txistularien Bandea joango da eta Bermeo Urikoa dan *San Pedro Zortzikoa* joko dabe.

36. art.

1. Kofradikoekaz alkartu ondoren, prozesinoa hasiko da, Arrantzaleen kofradiak prozesinorako gonbidapena egiten badau. Horren buru zibila izango dan alkatearen eskoiatara Arrantzaleen Kofradiako presidentea joango da araudi honetako 9.3. artikulua arautzen dauan legez, 4. eranskinean adierazten danaren arabera.
2. Segizinoaren aurretik Txistularien Bandea joango da, eta esaten jakon lekuetan Bermeo Urikoa dan San Pedro Zortzikoa joko dabe.
3. Prozesioa amaitu ondoren, segizioa desegingo da, alkatearen makila eta uriko estandarte Udalzaingoaren esku geratuko dirala.

II. kapituluak: MADALEN EGUNA “Izaroren eguna”

37. art.

1. Urtero, garagarrilaren 22an, Madalen Egunean Udalak antxina-antxinatik egin ohi dauen lez, Uriak Izaro islearen ipar-ekialderantz dauzan mugak adierazoko dauz, araudi honetan ezarten dan arabera.
2. Ekitaldi hori urteren baten ez ospatzeak, edozein dala zergaitia, ez dau esan gura muga horreek galdu edo-ta murriztuko diranik, ezta uriak hurrengo urteetan muga horreek adierazoteko eskubidea galduko dauenik be.

38. art.

1. Egun horretan, udalbatza, 9. eta 10. artikuluan ezartzen dan moduan eta 13. artikuluan agertzen diran jantziekaz, Goiko plazan, udaletxe aurrean batuko da eta Santa Eufemia eleiza aurrera joango da. Hemen, segizioa desegingo da denpora batez, udalbatzeko kideek elizkizunean parte hartzeko aukera izan daien. Honen ostean, segizioa desegin dan puntu berberan barriro

udalbatza batuko da itsasoratzeko lekura segizioan jarraitzeko. Udaletxetik eleizarainoko ibilbidean zein eleiza aurretik itsasontzirainoko tartean Txistularien Bandea joango da segizinoaren aurretik, eta Bermeo Urikoa dan *Madalenaren Zortzikoa* joko dau.

2. Alkateak makila eroango dau eta segizinoaren aurretik Uriko Estandartea joango da.
3. Segizioa moztan dan unean eta enbarkatzeko momentuan ere makila eta Uriko Estandartea Udaltzaingoaren ardurapean geratuko dira eta arratsaldera arte jagongo dauz bere egoitzan.

39. art.

1. Udalbatza doan itsasontzi ofizialean, Euskal Herriko Ikurrina ezezik, Uriko Estandartearen ordezeko Udal Banderatxoa eta Bermeoko banderea be jasoko dira trinketpaloan edo aurreranzkoenean.
2. Banderatxoa karmin kolore gorri ilunekoa izango da, 1:1 proportzinokoa, eta erdigunean, alde bietatik, uriko armak eukiko dauz; armak banderatxoaren altueraren erdia, eta jagoken zabalerea izango dabe baina kanpoko apaingarri barik.
3. Edozein arrazoiengaitik Alkateak beste itsasontzi bat hartu behar badau, Udal Banderatxoa beti izauko da ha ontziratzen dan beste edozein itsasontzitan.

40. art.

Alkatea ontziratuta doan itsasontziari egiten jakozan ziabogak libreak eta borondatezkoak izango dira, eta egiten dabezan patroien ardurapean egingo dira. Patroiek ahalik eta segurtasun neurri handienak hartu beharko dabez maniobretan arrisku mota danak ekiditeko, eta eurak izango dira modu zuzen eta pertsonalean ekitaldi horretan gertatu daitekezan kalte eta galeren erantzuleak.

41. art.

1. Itsasontzia Izaroren ingurueta heldzen danean, orekan ipiniko da ugarte ganean Bermeoko Banderea eta Ikurriña jarri eta eurak jaso dabezan pertsonak itsasontzira itzuli arte.
2. Ondoren, teila botatzearen ekintzea egingo da, horretarako, ondokoa izango da kontuan:
 - a. Itsasontzia Izaro islearen paraleloan jarriko da kanpoko aldetik, honen ipar-ekialdean, eta brankea Elantxobera begira dauela.
 - b. Alkateak, baborrean kokaturik, teila esku biekaz hartuko dau eta itsasora jaurtiko dau indarrez, bere buruaren ganetik, ondorengo hitzak esanez: *Horraingo heldzen dira Bermeoko itzuinak*.
 - c. Inork ezin izango deutso alkateari lagundu teilea botaten, eta ezin izango dau ekintza hori beste inogaz banatu.
 - d. Arabiar motako teilea erabiliko da, kurbatua eta gorria, eta erabilitakoa izan beharko dau. Itsas-ibilaldiaren bitartean eta itsasora bota artean, itsasontzian ikusteko moduko toki nabarian itxiko da teilea.
3. Teilea bota eta gero, Txistularien Bandea *Madalenaren Zortzikoa* joko dau, eta hori amaitzean udaleko idazkariak aktea formalizatuko dau.

4. Ekintzea egiaztatuko dauan idazkaria eta alkateak ezezik, beste zinegotziek, itsasontziko patroiak eta, eskatzen bajake, itsasontzian bertan ekintzan parte hartu daben beste agintari eta pertsonek be sinatuko dabe Aktea.
5. Madaleneko aktak udalaren edo idazkariaren ardura eta erantzukizunpean gordeko dira eta bost urterik behin koadernatu egingo dira eta udalbatzako akten erregimen juridiko bardina izango dabe.

42. art.

1. Jai honen OINARRIZKO EKITALDIAK diranak (Banderak isla ganean izau, teilea bota eta aktea sinatu) egin dirala egiaztatu ostean, eta ahal dan guztietan, ondoko Elantxobe eta Mundaka eleizateak bisitatuko dira, adeitasuna, laguntasuna eta alkarren ondoan dagozan herrien arteko asmo ona adierazoteko. Mundakara sartzeko enbarkazioan leku nahikorik ez badago udalbatza udal idazkaririk gabe joango da.
2. Kasu baxotxean bisitatzen dan herriko alkateak Bermeoko alkatea hartuko dau moila ganean, eta bere makilea emongo deutso, Euskal Herrian ohiturea dan moduan, eta gero ohorezko aurrekua eskeiniko deutso.

43. art.

1. Ekitaldia bisitatutako herriko beste toki baten egiten danean, segizinoan egingo dira moilatik eta moilaranzko ibilbideak, eta segizinoaren buruan Txistularien Banderak *Madalenaren Zortzikoa* joko dau.
2. Bermeoko alkatea herriotan dagoen denboran, makilagaz ibiliko da uneoro.
3. Bisitaldiaren ostean, eta itsasoratu baino lehen, Bermeoko alkateak makila itzuliko deutso harrerea egin deutson alkateari, eta itzulerako bidaiari ekingo deutso.

44. art.

Udalbatza Bermeora heltzerakoan, eta moileratzen dan lekuan bertan, honela antolatuko da:

1. Alkateak makilea eroango dau eta Uriko Estandarte ez da eroango.
2. Bermeoko alkatea izango da buru, Elantxobeko eta Mundakako alkateak, balegoz, aldamenen daukazala eta beste agintariek eta gonbidatuek lagunduta, 5. eranskinean ezarritako hurrenkerearen arabera.
3. Jarraian, segizinoak, bere aurrean jarriko diran eta *Madalenaren Zortzikoa* joko daben Txistulari Banda eta Musika Banderaz lagunduta, Udaletxerako bidea hartuko dau. Ibilaldi horren bidea urtero aldatu leiteke.

45. art.

Udaletxera itzulita, alkateak makilea Udaltzaingoari itzi eta Udalbatzako kideekaz batera, Ikurrina eta Bermeoko Banderea jasoko dauz, eta holan herriko jaia hasiko da plazan. Jarraian, alkatea, zinegotziak eta udal idazkaria, danak alkarregaz, lehen biribilketaren buru izango dira plazan, eta honegaz amaituko dira Madalenaren ekitaldi ofizialak, baina jai egitarauko beste ekitaldiek jarraituko dabe, bai plazan bertan bai herriko beste toki batzuetan.

III. kapitulua: SAN JUAN DEGOILATUA “Gaztelugatxeren eguna”

46. art.

Urteroko abuztuaren 29an, San Juan Batistaren degoilazinoaren jaia, Bermeoko Udalak, antxinatik datorren tradizioari jarraituz, Gaztelugatxeko San Juan Ermitako instalazino eta tresnak ikuskatuko dauz bisitaldia eginez Gaztelugatxeko islara.

47. art.

Ekintza hori ondorengo arauen arabera beteko da:

1. Udalbatza goizean batuko da, 9. artikuluan azaldutako eran, eta 13. artikuluan aipatutakoaren arabera jantzita egon beharko dira udalkideak.
2. Segizinoak, Txistulari Bandearen laguntzeaz, Udaletxe aurrean hasiko dau bere ibilaldia, Nardiz tar Jon eta Arresi kaleetatik jarraituz, San Juan Portalera heldu arte.
3. Azken leku horretara heldu aurretik, segizinoa une batez geldituko da Nekazari kalearen aurrean, lehen *Beien Portale* zanean, nondik antxina urteten eban Udalbatzak egun horretan Gaztelugatxera joateko.
4. Txistulari Bandeak Bermeo Uriko propioa dan *San Juan Zortzikoa* bakarrik joko dau ibilaldian.
5. Segizinoa San Juan Portalearen aurrean bananduko da, eta udalkideak Gaztelugatxera joango dira aurretik erabagitako moduan eta bideetatik.
6. Udaltzaingoa arduratuko da makilea eta uriho estandarteaz, eta haren ardurapean geratuko dira Udalbatza itzuli arte.

48. art.

Udalbatza Gaztelugatxe ganera heltzean eta eskilararen azken harmailan Arane-Gibelortzaga Auzo-alkatearen ongi etorria hartuko dau. Auzo-alkatea udalkideak legez jantzita egongo da, eta Uriko Alkatea agurtu ondoren, bere makilea emongo deutso.

49. art.

Udalaren presentzia adierazteko Udal Banderatxoa jasoko da Ikurrinaren ondoan.

50. art.

a. Ermita aurrean, alkateak ondorengo eskakizuna egingo dau:

Antxinatik datorren ohitureari jarraituz, santutegi honen inguruaren mantenurako erabilten diran gauzen kopurua eta egoerea azaldu egin deustazuz.

b. Gaztelugatxe Elkarteko kide batek modu labur eta zehatzean erantzungo deutso galdereari, eta ondoren, Alkateak ermitako kanpaia hiru bider joko dau.

51. art.

a. Jarraian, Udalbatza eskilararen ondora hurbilduko da eta alkateak Bermeoko banderea izauko dau, udal banderatxo eta ikurrinaren ondoan, eta udaleko

idazkariak alkateak egindako eskaeraren eta Gaztelugatxe Elkarteko kide batek emondako erantzunaren aktea egingo dau, eta akta hori jendaurrean irakurriko dau.

b. Aktea lehenengo alkateak sinatuko dau, gero Gaztelugatxe Elkarteko kideak, auzo-alkateak, zinegotziek eta azkenik idazkariak. Beste inork ezin izango dau aktea sinatu.

52. art.

Akta honeek kontserbatzeko eta zaintzeko erregimena araudi honetako 41.5 artikuluan aipatzen dan modukoa izango da.

IV. kapitulua: ANDRA MARI EGUNA “Almikako eguna”

53. art.

Udala, ohiturea danez, irailaren 8an, Almika auzora joango da udalbatza osotuz.

54. art.

Almikarako ibilaldia hasi baino lehen, 9.1. artikuluan agertzen dan moduan batuko da Korporazinoa Goiko plazan, udaletxe aurrean, eta bere kide guztiak 13. artikuluaaren arabera jantzita.

55. art.

- a. Jarraian, 9.2 artikuluan ezarri dan moduan eratuko da korporazinoa, eta aurretik finkatutako ibilbidearen arabera, Askatasun Bidea, Ander Deuna, Artike eta Erreñezubi kaleen alkarguneraino joango da, eta bertan, 9.1 artikuluan agertzen dan moduan *Alkate Soinuaren* agurra barriro entzun ondoren, Korporazinoa desegingo da eta aurreikusitako moduan igongo dabe Almikara.
- b. Urtero ibilaldi barria egiten saiatuko da, Udaletxetik hasita artikulua honetan azaldutako lekura arte. Ibilbidea zinegotziek proposatu leikie, edo Jai Batzordekideren batek eta erabakia Herriar Batzordetik bideratuko litzateke.
- c. Udaltzaingoa arduratuko da alkatearen makilaz eta uriko estantarteaz, barriro be estandarte Almika auzora igo beharko daularik.

56. art.

1. Eleiz ospakizuna bukatu ondoren, eleiza aurrean Udalbatza osotuko da barriro.
2. Auzo-alkatea segizinoaren zain egongo da, udalkideak lege zantzita, eta Uriko Alkateari bere makilea emongo deutso eta zelaira zuzenduko dira segizioan.

57. art

Harrera ekitaldia amaituta, dantzari eta txistulari taldeek Aurreskua eskeiniko deusie udal korporazinoari, eta horretarako Udalbatzea holan jarriko da:

1. Ohorezko lekuan, Alkatea.

2. Bere eskoian Almika auzoko alkatea, eta ezkerrean, Uriko Estandartea eroango dauan Sindikoa.
3. Horreen atzean, Udal Gobernuako kideak eta ganerako zinegotziak adinaren arabera ordenan jarrita eta, azkenean, idazkari nagusia (6. eranskina).

58. art.

Dantzariak gonbidatuta, udalkideak aurrekuan parte hartu ahal izango dabe.

59. art.

Aurrekua amaitzean, Uriko Alkateak makila itzuliko deutso Auzo-alkateari, eta segizinoa bananduko da. Udaltzaingoa estandarteaz arduratuko da.

V. kapitulua: SANTA EUFEMIA EGUNA

60. art.

1. Irailaren 16an, Udala, udalbatza osotuz, 9. eta 10. artikuluan ezartzen dan moduan eta 13. artikuluan agertzen diran jantziekaz, Goiko plazan, udaletxe aurrean batuko da eta Santa Eufemia eleiza aurrera joango da. Udalbatzaren segizioaren aurretik Auzo-alkateak joango dira, besteak lez jantzita eta euren makilekaz, ilara bitan antolatuta eurek ordezkatzan dabezan auzoen izenen arabera, eskoialdeko lehena Agirre izanik, ezkerrekoa Almika eta honela Arana-Gibelortzaga, Artika, Arranotegi, Demiku, Mañu, San Andres eta San Migel.
2. Santa Eufemia aurrean, segizioa desegingo da.
3. Udaletxetik egiten dan ibilbidean Txistularien Bandea joango da segizioaren aurretik.
4. Alkateak makila eroango dau eta segizioaren aurretik Uriko Estandartea joango da.
5. Segizioa moztan dan unean eta amaieran Makila eta Uriko Estandartea Udaltzaingoa ardurapean geratuko dira eta udaletxera bueltatuko daz.

61. art.

Elizkizunaren ostean, segizioa batuko da eta Eupeme Deuna enparantzara heldu ostean Txistularien Bandea *Alkate Soinua* joko dau. Horretarako udalbatzea 9.1 artikulua ezarritako eran jarriko da, eta jarraian Alkatea, Zinegotziek eta Idazkariak dantzaldia zabalduko dabe, eta hau amaitzean segizinoa banandu egingo da.

VI. kapitulua: BESTE OSPAKIZUN BATZUK

62. art.

Auzuneetan jaiak ospatzen diranean, uriko alkatea auzune horreetan ohituraz egiten diran ekitaldietara joango da, auzo alkateak lagunduta eta, harek uriko alkatea agurtuko dau bertara heltzean, eta makilea emongo deutso.

V. TITULUA OHOREAK ETA SARIAK

63. art.

Bermeoko Udalak ohoreak eta sariak banatu daitezke, kultura, kirol, zientzia, arte, gizarte edo ekonomia mailako aparteko merezimenduak, zerbitzu nabarmenak, lan baliotsuak eta aparteko ekarpenak saritzeko, zertarako-eta Bermeoren eta gizartearen ospea eta handitasuna areagotzeko asmoz.

64. art.

Honeexek dira Bermeoko Udalak emon daitezkan ohoreak eta sariak, lehentasun ordenearen arabera:

1. Bermeoko Seme/Alaba kutuna izendatzea.
2. Bermeoko Semetzakoa/Alabatzakoa izendatzea.
3. Bermeoko Urrezko Dominea.
4. Bermeoko Zidarrezko Dominea.

65. art.

Titulu honetako prozedura, sari-emote, erregistratze eta ganerakoetan, ohoreak eta sariak emoteko udal ordenantzan ezarritakoa bete beharko da.

VI. TITULUA ALKATE ETA ZINEGOTZIEN HERIOTZETAKOAK

66. art.

Alkatearen heriotza kasuan arau honeek jarraitu beharko dira:

1. Udalaren izenean eskelea ipiniko da egoki ikusten den egunkarietan.
2. Udaletxeko aurreko eta beste udal-eraikinetako banderak masta erdira bajatu edo lutoz jantziko dira hiletaren hurrengo egunera arte.
3. Udalaren izenean lore-korua edo sorta bat enkargatuko da.

67.art.

Zinegotziren baten heriotzaren kasuan, 66. artikuluan agertzen diran arau bardinak jarraituko dira.

68.art.

Alkate-ohiren baten heriotzaren kasuan, 67. artikuluan agertzen diran arau bardinak jarraituko dira.

69.art.

Zinegotzi-ohiren baten heriotzaren kasuan Udaletxe aurreko banderak masta erdira bajatuko dira, luto-seinale, hiletaren hurrengo egunera arte.

70.art.

Indarreko legealdiko Alkatearen zein Zinegotzien guraso, bikotekide edota seme-alabaren bat hil ezker, Udalaren izenean lore-korua edo sorta bat enkargatuko da.

71.art.

Aitatutako edozein kasu gertatu ezker, indarreko legealdiko alkateari eta zinegotziei barri emongo jake ahal dan arinen, hiletan parte hartu daien.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Protokoloburua udaleko Osoko Bilkuran izendatutako Kulturako zinegotzi ordezkaria izango da. Edozelan be, kargua ohorezkoa eta dohainekoa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik hamabost eguneko epean jarriko da indarrean.

1. ERANSKINA

9.1 art.

Zin. nagusia	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Idaz. Nag.
--------------	---	---	---	---	---	---	---	---	----	------------

5. Ao edo TGBeko kidea	3. Ao	1. Ao	Alk.	Sind.	2. Ao	4. Ao
------------------------	-------	-------	------	-------	-------	-------

2. ERANSKINA

9.2 art.

1. Ao	Alkatea	2. Ao
3. Ao		4. Ao
5. Ao edo TGBeko kidea		Zin. nagusia
2		3
4		5
6		7
8		9
10	Sindikoa	Idaz. Nag.

3. ERANSKINA

9.3 art.

Gonbidatua	Alkatea	Gonbidatua
1. Ao		2. Ao
3. Ao		4. Ao
5. Ao edo TGBeko kidea		Zin. nagusia
2		3
4		5
6		7
8		9
10	Sindikoa	Idaz. Nag.

4. ERANSKINA

Gonbidatuak

10	Sindikoa	Idaz. Nag.
8		9
6		7
4		5
2		3
5. Ao edo TGBeko kidea		Zin. nagusia
3. Ao		4. Ao
1. Ao		2. Ao
Kofradiako Presidentea		Alkatea

5. ERANSKINA

Gonbidatuak		
10	Sindikoa	Idaz. Nag.
8		9
6		7
4		5
2		3
5. Ao edo TGBeko kidea		Zin. nagusia
3. Ao		4. Ao
1. Ao		2. Ao
Elantxobeko alk.	Alkatea	Mundakako alk.

6. ERANSKINA

Zin. nagusia	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Idaz. Nag.
-----------------	---	---	---	---	---	---	---	---	----	---------------

5. Ao edo TGBeko kidea	3. Ao	1. Ao	Almihakak o AA	Alkatea	Sindikoa	2. Ao	4. Ao
---------------------------------	-------	-------	-------------------	---------	----------	-------	-------

Bermeon, 2020 ko azaroaren 5ean
Alkatea
Aritz Abaroa Cantuariense